Sony Ericsson Spiro™

Erabiltzailearen eskuliburua

Informazio garrantzitsua

Telefonoa erabili aurretik, irakurri *Información importante* izeneko liburuxka.

Esperientzia gehiago. Ezagutu zeintzuk.

Musikaz bete eta gozatu. Zure bizitza irudietan konpartitu. Edo, zergatik ez zara Internetera konektatzen eguneraketa berrienak lortzeko? Zure telefono berria mundu zabalago baten giltza da. Eta bertan duzu.
Erabili eskuliburu hau gailuarekin trebatzeko. Aukera guztiez gozatzeko, bat egizu gurekin Interneten. Musika, jokoak, aplikazioak, egunerakетak, deskargak, laguntza teknikoa eta asko z gehiago. Dena toki berean:
www.sonyericsson.com/spiro

Sarrera

SIM txartela

Sare-operadoreak emandako SIM txartelak (abonatuaren identifikazio-modulua) zure harpidetzari buruzko informazioa du. SIM txartela sartu edo atera aurretik, telefonoa itzali eta kargagailua deskonektatu.



PIN

Telefonoaren zerbitzuak eta funtzioak aktibatzeko, baliteke PINa (Identifikazio Pertsonaleko Zenbakia) behar izatea. PIN kodea sareko operadoreak emango dizu. Digituak * ikurrarekin ezkutatzen dira, lehenbiziko zenbakiak larrialdietako telefonoren bateko zenbaki berberekin hasten direnean izan ezik (adibidez, 112 edo 911). Hartara, larrialdietako telefono bat ikus dezakezu eta hara deitu PINik sartu gabe.

! PINa hiru aldiz jarraian gaizki sartuz gero, SIM txartela blokeatu egiten da. Ikus SIM txartela bloke atzea, 34. orrialdean.

SIM txartela sartzeko



1 Kendu bateriaren tapa.
2 Sartu SIM txartela dagokion tokian, urre-koloreko kontaktuak beherantz dituela.

Bateria sartzeko

1 Sartu bateria alde etiketaduna gorantz duela eta konektoreak bata bestearen parean daudela.
2 Ipini telefonoaren tapa bere tokian eta blokea ezazu.

Telefonoa piztea

Telefonoa pizteko
1 Luze sakatu .
2 Tapa ireki eta idatzi PIN zenbakia, eskatzen badizu .
3 Hautatu **Ados**.
4

4 Hautatu hizkuntza.

5 Hautatu **Bai** konfigurazio-laguntzailea geroago erabiltzeko.

! PINa sartzean errore bat zuzendu nahi baduzu, sakatu .

Itxaroteko modua

Sare-operadorearen izena bistaratuko da telefonoa piztu eta PIN kodea sartutakoan. Horri itxaroteko modu esaten zaio. Une horretan, telefonoa erabiltzeko moduan dago.

Telefonoa itzaltzeko
- Luze sakatu .

! **Telefonoa itzali aurretik, bueltatu itxaroteko modura.**

Memoria-txartela

! **Litekeena da memoria-txartel bat erosi behar izatea.**

Telefonoak microSD™ memoria-txartela onartzen du; telefonoari gordetzeko toki gehiago eransten dio. Memoria-txartel eramangarri gisa ere erabil daiteke beste gailu bateragarri batzuekin.
Telefonoko memoriako edukia memoria-txartelera eram an dezakezu, eta alderantziz.

Memoria-txartela sartzeko

- Kendu bateriaren estalkia eta sartu memoria-txartela urre koloreko kontaktuak behera begira dituela.

Memoria-txartela ateratzeko

- Kendu bateriaren estalkia eta deslice la tarjeta de memoria para extraerla.

Telefonoaren deskribapen orokorra

1 Bozgorailua, entzungailuarekin
2 Pantaila
3 Kargagailurako eta USB kablerako konektorea
4 Aukeraketa-teklak
5 Deitzeko tekla
6 Lasterbideetarako tekla
7 Norabide-tekla, Walkman erreproduzitzailea kontrolatzeko-tekla Walkman™, TrackID™*
8 Deia amaitzeko edo pizteko/itzaltzeko tekla
9 C tekla (ezabatzeko)
10 Isilik moduaren tekla
11 Esku libreko kiterako konektorea
12 Kameraren objektiboa
13 Bolumen-tekla
14 Bozgorailua

* Gerta daiteke TrackID™ laster bide-tekla ez egotea erabilgarri zure telefonoan.

Pantailako ikonoak

Ikono hauek pantailan ager daitezke.

Ikonoa	Deskribapena
	Galdutako deia
	Esku librekoa konektatuta
	Deia martxan
	SMSa jaso da
	MMSa jaso da
	Idazteko modu prediktiboa aktibatuta
	Telefonoa isilduta
	Irratia martxan
	Alarma aktibatuta
	Bluetooth™ funtzioa aktibatuta

Bateria kargatzeko

- Konektatu kargagailua telefonoari tximistaren ikurra gorantz begira dagoela. 2,5 ordu inguru behar dira bateria erabat kargatzeko. Telefonoa erabil dezakezu kargatzen ari den bitartean.

Telefonoaren bateria erdi beteta dago eroskerakoan. Minutu batzuk pasa daitezke bateriaren ikonoa pantailan agertu arte.

! Bateria guztiz kargatu ondoren deskargatzen hasiko da eta aldika berriz kargatuko da. Honek bateriaren iraupena luzatzeko balio du eta kargaren egoera % 100etik beherako maila agertzea eragin dezake.

Menuen deskribapen orokorra

- **PlayNow™**
- **Kamera**
- **Alarmak**
- **Deiak**** Guztiak, Erantzundakoak, Markatuak, Galduak
- **Internet**
- **Mezularitza** Idatzi berria, Sarrerako ontzia/ Hizketaldiak, Mezuak, Deitu erantzung.
- **Kontaktuak**
- **Antolatzailea** Fitxategi kudeatzailea**, Aplikazioak, Egutegia, Egitekoak, Oharrak, Tenporizadorea, Kronometroa, Kalkulagailua
- **Denborapasak** Operadore-zerbitzuak*, PlayNow™, Irratia, Jokoak, TrackID™, Grabatu soinua
- **Media**
- **WALKMAN**
- **Ezarpenak**** Orokorra, Soinuak eta alert., Pantaila, Deiak, Konexioak

* Menu batzuk sarearen, harpidetzaren eta operadorearen menpe daude.
** Norabide-tekla erabil dezakezu azpimenuetako fitxetan mugitzeko.

Nabigazioa

Menu nagusiak ikono gisa azaltzen dira. Azpiko menu batzuk Fitxak ere erabiltzen ditutze.

Menu nagusira sartzeko
- Pantailan **Menua** agertzen denean, sakatu erdiko aukeraketa-tekla.
- Pantaila ez bada M**enua** agertzen, sakatu bukatzeko tekla eta jarraian erdiko aukeraketa-tekla.

Telefonoaren menuetan barrena mugitzeko
1 Sakatu erdiko aukeraketa-tekla **Menua** aukeratzeko.
2 Sakatu norabide-tekla beherantz, gorantz, eskuinera edo ezkerrera menuetan barrena mugitzeko.

Elementu bat hautatzeko
- Mugitu elementura eta sakatu erdiko aukeraketa-tekla.

Fitxa batetik bestera mugitzeko
- Sakatu norabide-tekla ezkerrerantz edo eskuinerantz.

Menuan pauso bat atzera egiteko
- Hautatu **Atzera**.

Funtzio bat amaitzeko
- Sakatu .

Itxaroteko modura itzultzeko
- Sakatu .

Elementuak ezabatzeko
- Joan nahi duzun elementura eta sakatu .

Laster teklak

Funtzio batzuetara azkar sartzeko, itxaroteko moduan edo laster tekles menuan norabide-teklaren lasterbideak erabil ditzakezu.

Norabide-teklaren lasterbideak erabiltzeko
- Sakatu norabide-tekla beherantz, gorantz, eskuinerantz edo ezkerrerantz funtzio batera zuzenean joateko.

Norabide-teklaren lasterbide bat aldatzeko
- Itxaroteko moduan, hautatu **Menua > Ezarpenak > Orokorra fitxa > Laster teklak**.

! **WALKMAN lasterbidea ezin daiteke aldatu**.

Laster teklen menua irekitzeko
- Sakatu .

Lasterbide bat gehitzeko
1 Sakatu .
2 Joan **Laster t. berria** eta hautatu **Gehitu**.

Lasterbide bat ezabatzeko edo mugitzeko
1 Sakatu .

3 Hautatu aukera bat .

Soinua aktibatzeko edo desaktibatzeko
- Luze sakatu .

Testua idaztea

Testua sartzeko, pultsazio bidezko metodoa edo Zi™ erabil dezakezu. Zi metodoak integratuta duen hiztegi bat erabiltzen du.

Zi testua sartzeko metodoa erabiltzen duzunean, tekla bakoitza behin baino ez duzu sakatu behar. Jarraitu hitza idazten, nahiz eta zuzena ez iruditu arren.

Zi bidez testua sartzeko
1 Adibidez, "Jane" hitza idazteko, sakatu , , , .
2 Une honetan aukera ezberdinak dituzu:
- Agertzen den hitza nahi duzuna bada, sakatu onartzeko eta zuriune bat gehitzeko. Hitza zuriunerik gehitu gabe onartzeko, sakatu norabide-tekla eskuinerantz.
- Agertzen den hitza nahi duzuna ez bada, sakatu norabide-tekla gorantz edo beherantz hautazko hitzak ikusteko. Hitza onartzeko eta zuriune bat gehitzeko, sakatu .
- Bukaerako puntuak eta komak gehitzeko, sakatu eta norabide-tekla nahi duzun puntuazio markara joateko.

Pultsazio bidezko metodoa erabiliz testua sartzeko
- Sakatu – nahi duzun karakterea agertu arte.
- Sakatu zuriune bat gehitzeko.
- Sakatu puntuazio markak gehitzeko.

Testua sartzerakoan lasterbideak eta teklak erabiltzeko
- Testua sartzeko metodoa aldatzeko, luze sakatu .
- Idazteko hizkuntza aldatzeko, luze sakatu .
- Zenbakien, maiuskulak eta minuskulen artean aldatzeko sakatu .

- Karaktere bat ezabatzeko, sakatu .
- Hitz oso bat ezabatzeko, luze sakatu .
- Zenbakiak sartzeko, luze sakatu – .

Hiztegian hitz bat gehitzeko
1 Zi bidez idazten ari zarenean, hautatu **Auker.** > **Letreiatu hitza**.
2 Editatu hitza pultsazio bidezko metodo bidez, eta hautatu **Gorde**.

Deiak

Telefonoa piztea eta sare-estaldura egotea ezinbestekoa da.

Deia egiteko
1 Sartu telefono-zenbakia (herrialdearen nazioarteko aurrezenbakiarekin eta eremuko kodearekin, baldin badagokio).
2 Sakatu .

Telefono-aurkibideko eta dei-zerrendako zenbakietara dei dezakezu. Ikus Kontaktuak 19. orrialdean eta Dei-zerrenda 18. orrialdean.

Deia amaitzeko
- Sakatu .

Dei bati erantzuteko
- Sakatu

Deia ez onartzeko:
- Sakatu .

Hitz egiten ari zarenean, entzungailua duen bozgorailuaren bolumena aldatzeko
- Sakatu bolumen-tekla gorantz edo beherantz.

Dei-tonua desaktibatzeko deia erantzun gabe
- Sakatu bolumen-tekla gorantz edo beherantz.

Hitz egiten ari zarenean, bozgorailua aktibatzeko
- Hautatu Boz.akt..

Ez eraman telefonoa belarriaren ondora bozgorailua erabiltzen duzun bitartean. Belarrian min har dezakezu.

Nazioarteko deia egiteko
1 Luze sakatu hurrengo ikurra agertu arte "+".
2 Sartu nazioarteko zenbakia, eremuko-kodea (hasierako zeroa jarri gabe) eta telefono zenbakia.
3 Sakatu .

Dei-zerrenda

Azken deiei buruzko informazioa ikus dezakezu.

Dei-zerrendako zenbaki batera deitzeko
1 Sakatu .
2 Joan izen edo telefono-zenbaki batera, eta sakatu .

Dei-zerrenda husteko
1 Sakatu .
2 **Guztiak** aukeran, hautatu **Auker.. > Ezabatu guztiak**.
3 Konfirmatzeko sakatu **Bai**.

Larrialdi-deiak

Telefonoak nazioarteko larrialdi-zenbakiak onartzen ditu, adibidez, 112 edo 911. Zenbaki horiek edozein herrialdetan larrialdi-deiak egiteko erabil daitezke, gailuan SIM txartela sartuta edo sartu gabe, sare baten estalduraren barruan badago.

Larrialdi-deia egiteko
- Sartu 112 (nazioarteko larrialdi-zenbakia) eta sakatu .

! Herrialde batzuetan, beste larrialdi-zenbaki batzuk ere egon daiteke. Beraz, baliteke zure sare-operadoreak tokiko beste larrialdi-zenbaki batzuk gorde izana SIM txartelean.

Kontaktuak

Izenak, telefono-zenbakiak eta informazio pertsonala gorde ditzakezu kontaktuetan. Informazioa telefonoaren memorian edo SIM txartelean gorde dezakezu.

Telefono-kontaktu bat gehitzeko
1 Hautatu **Menua > Kontaktuak**.
2 Joan **Kontaktu berria** aukerara eta hautatu **Gehitu**.
3 Izena idatzi eta hautatu Ados.
4 Joan **Zenbaki berria** aukerara eta hautatu **Gehitu**.
5 Zenbakia idatzi eta hautatu **Ados**.
6 Hautatu zenbaki-aukera bat.
7 Mugitu fitxa batetik bestera eta bete eremuak.
8 Hautatu **Gorde**.

Telefonoko kontaktu bati informazioa aldatzeko
1 Hautatu **Kontaktuak**.
2 Joan kontaktu batera, eta hautatu **Auker.**
> Editatu kontaktua

3 Mugitu fitxa batetik bestera, informazioa editatu eta hautatu **Gorde**.

Kontaktuei deitzea

Bilaketa dinamikoa erabilita deitzeko
1 Sakatu – digitu-sekuentzia bat (gutxienez bikoa) idazteko. Digitu- edo letra-sekuentziarekin bat datozen sarrera guztien zerrenda bistaratzen da.
2 Joan kontaktu edo telefono-zenbaki batera, eta sakatu deitzeko tekla.

Bilaketa dinamikoa aktibatzeko edo desaktibatzeko
1 Hautatu Menua > Ezarpenak > Deiak > Bilaketa dinamikoa.
2 Hautatu aukera bat.

Mezularitza

Testu-mezuak

Indarrean dagoen zerbitzu zentroko zenbaki bat izan behar duzu telefonoan. Zenbaki hori zerbitzu hornitzaileak emango dizu eta SIM txartelean gordetzen da. Gerta daiteke zuk zeuk sartu behar izatea.

Mezuak sortzeko eta bidaltzeko
1 Hautatu **Menua > Mezularitza > Idatzi berria > Mezua**.
2 Testua idatzi eta hautatu **Jarraitu**. Hautatu **Bilatu kontaktuak** edo **Idatzi telefono zk.**.
3 Hautatu hartzailea, eta hautatu **Bidali**.

Jasotako mezu bat ikusteko
- **SMSa jaso da Nork: Irakurri?** Agertzen denean, hautatu **Bai**.

S arrerako erretiluko mezu bat ikusteko
1 Hautatu **Menua > Mezularitza** > **Sarrerako ontzia**.

2 Joan mezu batera, eta hautatu **Ikusi**.

Multimedia mezuak

Testua, irudiak, soinu-grabazioak eta elementu erantsiak izan ditzakete MMS mezuek. MMS (Multimedia Messaging Service) bidez bidaltzen dira telefono mugikor batera. Multimedia mezularitza erabiltzeko, Interneteko doikuntza egoikak behar dira telefonoan. Ikusi *Internet* 31. orrialdean.

Debe Interneteko profil bat eta mezu-zerbitzariaren helbidea definitu behar dituzu. Interneteko edo mezularitzako zerbitzuko profilik ez badago, MMSrako ezarpen guztiak automatikoki jaso ditzakezu sare-operadorearen mezu batean edo *www.sonyericsson.com/support* gunearen bidez.

MMS bat bidaltzeko
1 Hautatu **Menua > Mezularitza > Idatzi berria > Mezua**.
2 Testua idatzi. Mezuari elementuak eransteko, sakatu norabide-tekla beherantz, mugitu ezkerrera edo eskuinera eta hautatu elementua.
3 Bidali aurretik, MMSa ikusteko, hautatu **Auker. > Aurrebista**.
4 Mezua prest dagoenean, hautatu **Jarraitu**.
5 Hautatu **Bilatu kontaktuak** eta hautatu hartzailea.
6 Hautatu **Bidali**.

MMS mezuak bidaltzeko, horiek onartzen dituen harpidetza izan behar dute bai bidaltzaileak, bai hartzaileak.

Mezuak **Hizketaldiak** edo **Sarrerako ontzia** eremuan ikusi nahi dituzun aukera dezakezu. Mezu hizketaldi baten, erabiltzailea eta kontaktuaren artean bidalitako mezu guztiak agertzen dira .

April 9, 2010 11:27:7

Hizketaldiak aukeratik mezu bat bidaltzeko
1 Hautatu **Menua > Mezularitza**.
2 Hautatu **Hizketaldiak** edo **Sarrerako ontzia >Hizketaldiak** fitxa.
3 Hautatu hizketaldi bat.
4 Mezua idatzi eta hautatu **Bidali**.

Hizketaldiak aukeran mezuak ikusteko
- Hautatu **Menua > Mezularitza** > Sarrerako ontzia > **Hizketaldiak** fitxa eta hautatu hizketaldi bat.
- Hautatu **Menua > Mezularitza** > **Hizketaldiak** eta hautatu hizketaldi bat.

Walkman™

Musika erreproduzitzeko
1 Sakatu eta hautatu Auker. > Nire musika.
2 Egile, album, pista edo erreprodukzio zerrendatik bilatu. Mugitu aukera batera eta sakatu **Hautatu** irekitzeko.
3 Mugitu pista batera eta hautatu **Erreprod**.

Musika-erreprodukzioa eteteko
- Pista bat entzuten ari zarela, sakatu .

Musika transferitzea

Ordenagailutik telefonoaren memoriara edo memoria-txartelera musika transferitu dezakezu. Bi modu daude telefonoa eta ordenagailua konektatzeko:
- USB kable bidez
- haririk gabeko Bluetooth™ konexio batekin. Fitxategiak telefonoa edo memoria-txartela eta ordenagailuaren artean lerratu eta askatu daitezke Microsoft® Windows®eko esploratzailean.

Fitxategiak telefonora transferitzeari buruzko informazio gehiago lortzeko, joan *www.sonyericsson.com/support* gunera.

! Gerta daiteke USB kablea erosi behar izatea.

Telefonoa ordenagailura USB kable bidez konektatzeko
1 Ziurtatu telefonoa piztuta dagoela.
2 Konektatu USB kablea telefonora eta ordenagailura.
3 **Telefonoa**: hautatu **Biltegira. masiboa**.
4 **Ordenagailua**: itxaron kontrolatzaileak instalatu arte (instalazioa automatikoa da). Telefonoa ordenagailura konektatzen duzun lehen aldian, gerta daiteke telefonoa identifikatu eta izen bat jarri behar izatea.

USB kablea erabilita fitxategiak transferitzeko biltegiratze masiboa moduan

! Ez atera USB kablea telefonotik edo ekipotik fitxategien transferentzia egin bitartean, telefonoaren memoria edo memoria-txartela honda baitaitezke. Ezin dituzu telefonora transferitutako fitxategiak ikusi, USB kablea telefonotik kendu arte.

1 Konektatu telefonoa ordenagailura USB kablearen bidez.
2 **Telefonoa**: hautatu **Biltegira. masiboa**.
3 **Ordenagailuan**: itxaron telefonoaren memoria edo memoria-txartela Windows-en arakatzailean kanpoko disko gisa bistaratu arte.
4 **Ordenagailua**: mahaigainean, sakatu birritan Mi PC ikonoa.
5 **Ordenagailua**: telefonoan eta memoria-txartelean dauden karpetak ikusteko, sakatu birritan telefonoa irudikatzen duen ikonoan.

6 **Ordenagailua**: kopiatu eta itsatsi fixategia edo arrastatu eta askatu ordenagailuko karpeta baten edo telefonoaren memoria edo memoria-tartelean.
7 USB kablea segurtasun osoz deskonektatzeko, egin klik saguaren eskuineko botoiaz Windows-en arakatzaileko disko aldagarriaren ikonoaren gainean eta hautatu **Expulsar**.

Erreprodukzio-zerrendak

Erreprodukzio-zerrendak sor ditzakezu, musika antolatzeko.

Erreprodukzio-zerrenda bat sortzeko
1 Sakatu eta hautatu **Menua > Media > Musika > Erreprod. zer. > Zerrenda berria**.
2 Sartu izen bat, eta hautatu **Ados**.
3 Joan pistara, eta hautatu **Markatu**.
4 Hautatu **Gehitu** pista erreprodukzio-zerrendara gehitzeko. Errepikatu 3. eta 4. pausuak pista gehiago gehitzeko.

Erreprodukzio-zerrendan pistak gehitzeko
1 Sakatu eta hautatu **Auker. > Nire musika > Erreprod. zer**.
2 Ireki erreprodukzio zerrenda bat eta hautatu **Auker. > Gehitu musika**.
3 Markatu nahi dituzun pistak eta hautatu **Gehitu**.

Karpeta batetik erreprodukzio zerrendara pistak gehitzeko, markatu karpeta eta hautatu **Auker. > Gehitu**.

Erreprodukzio-zerrendan pistak ezabatzeko
1 Sakatu eta hautatu **Auker. > Nire musika > Erreprod. zer**.
2 Ireki erreprodukzio zerrenda bat eta joan pista batera.
3 Sakatu eta hautatu **Bai**.

Walkman™ erreproduzitzailea kontrolatzeko
- Sakatu Walkman™ erreproduzitzailea irekitzeko edo bikitzeko.
- Uneko musika fitxategia erreproduzitzeko edo eteteko, sakatu .
- Sakatu hurrengo musika fitxategira mugitzeko.
- Sakatu aurreko musika fitxategira mugitzeko.
- Luze sakatu edo azkar aurreratzeko edo atzera eramateko musika pistak erreproduzitzen dituzunean.
- Sakatu norabide-tekla gorantz edo beherantz erreprodukzio zerrendako fitxategiak ikusteko eta bertatik mugitzeko.
- Sakatu bolumen-tekla gorantz edo beherantz bolumen aldatzeko.
- Hautatu **Atzera** Walkman™ erreproduzitzailea bikitzeko Erreproduzitzen ari den bitartean.

TrackID™

Musika ezagutzeko zerbitzua da TrackID™. Bozgorailutik edo irratian entzuten ari zaren pistaren izenburua, artista eta bildumaren izena bila ditzakezu.

! Funtzio hau erabiltzeko Java™ softwarea behar duzu eta Interneteko doikuntza egokiak. Ikus *Internet* 31. orrialdean. Kostuari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, galdetu zerbitzu hornitzaileari.

Pistari buruzko informazioa bilatzeko
- Bozgorailutik pista bat entzuten ari zarenean, hautatu **Menua > Denborapasak > TrackID™ > Hasiera**.
- Telefonoaren irratitik pista bat entzuten ari zarela, irratiaren ikuspegitik hautatu **Auker.. > TrackID™.**

PlayNow™

PlayNow™ irekitzen duzunean, PlayNow ra konekta zaitezke, dei-tonuak, jokoak, musika, gaiak eta pantaila-hondoak deskargatzeko. Aurrebista bat ikus dezakezu edo edukia entzun, erosi eta telefonoan deskargatu aurretik.

! Zerbitzu hori ez dago herrialde guztietan erabilgarri.

Funtzionalitate handiagoa lortzeko, sartu PlayNow™ dendara ordenagailu batetik *www.sonyericsson.com/playnow* gunean. Informazio gehiago nahi baduzu, joan *www.sonyericsson.com/support* gunera *PlayNow*™.funtzio gida ikusteko
Bi modu daude PlayNow™ erabiltzeko:
- Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua> PlayNow™.**
- Sartu *www.sonyericsson.com/playnow* gunera.

Bideo-erreproduzitzailea

Bideoak ikusi eta kudeatu daitezke telefonoan.

Bideoak erreproduzitzeko
1 Hautatu Menu > Media > Bideo.
2 Mugitu bideo batera eta hautatu **Erreprod**.

Irratia

Telefonoa esku libreko ekipo batera konektatzen baduzu, irratia entzun dezakezu. Esku libreko ekipoak antenarena egiten du.

Merkatu batzuetan esku libreko ekipoa bereiz eros daiteke.

! Ez erabili telefonoa irrati gisa debekatuta dagoen tokietan.

Irratia pizteko
1 Konektatu esku libreko ekipoa telefonora.
2 Hautatu **Menua > Denborapasak > Irratia**.

Kateak automatikoki bilatzeko
- Irratia entzuten ari zarela hautatu **Bilatu**.

Kateak eskuz bilatzeko
- Irratia entzuten ari zarela, sakatu eskuineko edo ezkerreko norabide-tekla.

Irudiak

Argazki-kamera eta bideo-kamera

Argazkiak atera eta bideoklipak graba ditzakezu, gordetzeko, ikusteko edo bidaltzeko. Argazkiak eta bideoklipak automatikoki gordetzen dira telefonoaren memorian.

Telefonoaren memorian ere gorde daitezke. Horretarako hautatu **Kamera > Auker. > Gorde hemen > Memoria txartela**.

Argazkia ateratzeko
1 Aktibatu kamera, eta, norabide-tekla ezkerrera sakatuta, joan **aukerara**.
2 Hautatu **Egin ar.** Argazkia automatikoki gordetzen da JPEG formatoan.

Argazkia lauso ez ateratzeko, telefonoa finkatu edo erabili tenporizadore automatikoa.

Kameraren ezarpenak aldatzeko
1 Hautatu **Kamera > Auker**.
2 Hautatu elementu bat eta aldatu ezarpenak.

Gordetako argazki bat bidaltzeko
1 Hautatu **Menua > Antolatzailea > Fitxategi kudeatzailea > Kameraren albuma**.
2 Mugitu argazki batera eta hautatu **Auker. > Bidali**.
3 Hautatu aukera bat.

Ikus *Para enviar un elemento con la función Bluetooth*™ 31. orrialdean. Ikus *Para enviar un mensaje multimedia* 21. orrialdean.

Bideoklip bat grabatzeko
1 Hautatu **Kamera** eta sakatu norabide-tekla eskuinerantz aukerara arte.
2 Hautatu **Grabat.** grabaketa hasteko.
3 Gelditzeko, hautatu Geldi. Bideoklipa automatikoki gordeko da.

! Ez grabatu atzealdean potentzia handiko argia badago.

Bideoklipak ikusteko
1 Hautatu **Menua > Antolatzailea > Fitxategi kudeatzailea** > **Bideoak**.
2 Mugitu bideoklip batera eta hautatu **Erreproduzitu**.

Argazkiak eta bideoklipak transferitzea

Haririk gabeko Bluetooth™ teknologia eta USB kablea erabil ditzakezu argazkiak eta bideoklipak transferitzeko ordenagailua eta telefonoaren artean. Informazio gehiago nahi baduzu, ikus *Bluetooth™, tecnología inalámbrica* 29. orrialdean eta *Para transferir archivos en el modo de almacenamiento masivo usando un cable USB* 23. orrialdean.

Bluetooth™, haririk gabeko teknologia

Haririk gabeko Bluetooth™ teknologiaren bidez, haririk gabe konekta zaitezke beste Bluetooth gailu batera, entzungailu batera adibidez. Une berean hainbat gailutara konekta zaitezke edo elementuak trukatu.

! Bluetooth bidezko komunikazioetan, gailuen artean gehienez 10 metroko distantzia egotea (33 oin) eta tartean objektu solidorik ez egotea aholkatzen da

Bluetooth funtzioa aktibatzeko
- Hautatu **Menua > Ezarpenak> Konexioak > Bluetooth > Aktibatu.**

! Herrialde batzuek ez dute haririk gabeko Bluetooth teknologia erabiltzeko baimena ematen.

Telefonoa mostrar u ocultar el teléfono
- Hautatu **Menua > Ezarpenak> Konexioak > Bluetooth** > **Ikusgarritasuna** > **Erakutsi telefonoa** edo **Ezkutatu telef.**.

! **Ezkutatu telef.** hautatzen baduzu, beste gailuek ezin izango dute telefonoa identifikatu haririk gabeko Bluetooth™ teknologia erabilita.

Telefonoa gailu batekin lotzeko
1 Erabilgarri dauden gailuak aurkitzeko, hautatu **Menua > Ezarpenak> Konexioak > Bluetooth** > Nire gailuak > Gailu berria.
2 Hautatu zerrendako gailu bat.
3 Idatzi sarbide-kodea, behar izanez gero.

! Egiaztatu lotu nahi duzun gailuak Bluetooth™ funtzioa aktibatuta dagoela eta Bluetootharen ikusgarritasuna **Erakutsi telefonoa** aukeran dagoela.

Telefonoa Bluetooth esku libreko batekin lotzeko
1 Hautatu **Menua > Ezarpenak**.
2 Sakatu eskuineko norabide-tekla **Konexioak** aukerara mugitzeko eta hautatu **Bluetooth > Eskulibrea > Nire eskulibrea > Eskulibre berria**.

Elementu bat jasotzeko
1 Aktibatu Bluetooth™ funtzioa eta **Ikusgarritasuna** doitu telefonoa erakusteko.
2 Elementu bat jasotzen duzunean, jarraitu agertzen diren argibideak.

Elementu bat bidaltzeko Bluetooth™ funtzioarekin
1 Hautatu, adibidez, Menua > Antolatzailea > Fitxategi kudeatzailea > Kameraren albuma.
2 Mugitu elementu batera eta hautatu Auker. > Bidali > Bluetooth bidez.

Internet

Interneteko doikuntza egokiak behar dituzu telefonoan. Doikuntzak telefonoan ez badaude, joan www.sonyericsson.com/support gunera edo galdetu zerbitzu hornitzaileari informazio gehiago lortzeko.

! Egiaztatu datu transmisioa onartzen duen telefono harpidetza duzula.

Interneteko profil bat aukeratzeko
1 Hautatu **Menua > Ezarpenak > Konexioak > Interneteko Ezarp. > Interneteko profilak > Konekt. Hau erabiliz**:
2 Hautatu kontu bat.

Nabigatzen hasteko:
1 Hautatu **Menua > Internet > Auker. > Joan hona**.
2 Hautatu aukera bat.

Nabigatzailetik ateratzeko
- Nabigatzen zaudela, sakatu .

Funtzio gehiago

Fitxategi kudeatzailea

Telefonoaren memorian edo memoria-txartelean gordetako fitxategiak kudeatu ditzakezu. Azpikarpetak sor ditzakezu zure fitxategiak bertan gordetzeko.

Fitxategiaren informazioa ikusteko
1 Hautatu **Menua > Antolatzailea > Fitxategi kudeatzailea**.
2 Hautatu karpeta bateko fitxategia eta hautatu **Auker.. > Informazioa.**

Fitxategi kudeatzailean fitxategi bat kopiatzeko edo mugitzeko
1 Hautatu **Menua > Antolatzailea > Fitxategi kudeatzailea**.
2 Bilatu fitxategia eta hautatu **Auker**. > **Kudeatu fitxategia**..
3 Hautatu **Kopiatu** edo **Mugitu**.

Memoriaren egoera ikusteko
- Hautatu **Menua > Antolatzailea > Fitxategi kudeatzailea** > **Auker**. > **Mem. egoera**.

Ahots-postontzia

Harpidetzak erantzungailu-zerbitzua baldin badu, deitzen dutenek mezu bat utz dezakete ahots-postontzian deia ezin duzunean hartu.

Ahots-postontziko zenbakia sartzeko
1 Hautatu **Menua > Mezularitza > Mezuak > Ezarpenak > Ahots postaren zk.**
2 Sartu zenbakia, eta hautatu Ados.

Ahots-postontziaren zerbitzura deitzeko
- Luze sakatu 1 .

Alarmak

Alarmaren seinale gisa soinu bat edo irratia hauta dezakezu. Telefonoa itzalita badago ere, alarmak jo egiten du.

Alarma konfiguratzeko
1 Hautatu **Menua > Alarmak**.
2 Mugitu alarma batera eta hautatu Editatu.

3 Aldatu aukeren artean eta jarri itzazu ordua, alarma seinalea eta eskatutako beste datu guztiak.
4 Hautatu **Gorde**.

! Alarma seinale gisa irratia jartzen baduzu, mantendu esklibrea jarrita. Irratiaren alarma bozgorailutik entzuten da.

Alarma isiltzeko
1 Alarmak jotzen duenean, sakatu edozein tekla.
2 Alarmak berriz jotzeko, hautatu **Atzeratu**.

Dei-tonuak eta hondoak

Hondoak pantailaren ibxura aldatzeko erabiltzen dira.

Dei-tonuaren bolumena ezartzeko
1 Hautatu **Menua > Ezarpenak > Soinuak eta alert. > Tonuaren bolumena**.
2 Sakatu ezkerreko edo eskuineko norabide-tekla bolumena aldatzeko.
3 Hautatu **Gorde**.

Dei-tonu bat aukeratzeko
1 Hautatu **Menua > Ezarpenak > Soinuak eta alert** > **Tonua**.
2 Bilatu dei-tonu bat eta hautatu.

Dardara alerta konfiguratzeko
1 Hautatu **Menua > Ezarpenak > Soinuak eta alert** > Dardara alerta.
2 Hautatu aukera bat.

Arazki bat horma-papera gisa erabiltzeko
1 Hautatu **Menua > Antolatzailea > Fitxategi kudeatzailea** > Kameraren albuma.

2 Mugitu argazki batera eta hautatu **Auker. > Erabili honela > Horma-papera**.

Teklatua blokeatzea

Blokeo hori ezar dezakezu, ustekabean zenbakiren bat ez markatzeko. Jasotzen diren deiei zenbakien teklatua desblokeatu beharrik gabe erantzun diezaiekezu.

Horrez gain, nazioarteko larrialdi-zenbakira (112) ere deitu dezakezu.

Teklen blokeo automatikoa aktibattzeko
1 Hautatu **Menua > Ezarpenak > Orokorra > Segurtasuna > Blokeo automatikoa**.
2 Hautatu aukera bat.

SIM txartela blokeatzea

Blokeatze horrek zure harpidetza bakarrik babesten du. Telefonoak funtzionatuko du beste SIM txartel batekin. Blokeatzea aktibatuta badago, PIN kodea (identifikazio pertsonaleko zenbakia) sartu behar duzu.
PINa hiru aldiz jarraian gaizki sartuz gero, SIM txartela blokeatu egiten da. PUK kodea (desbloketze-kode pertsonala) sartu behar duzu. Sare-operadoreak emango dizkizu PIN eta PUK kodeak.

SIM txartela desblokeatzeko
1 PIN blokeatua mezua agertzen bada, sartu PUK kodea eta hautatu **Ados**.
2 Sartu PIN kode berria, eta sakatu **Ados**.
3 Sartu berriz PIN kode berria, eta hautatu **Ados**.

SIM txartelaren blokeoa aktibatzeko
1 Hautatu **Menua > Ezarpenak > Orokorra > Segurtasuna** > **SIM babesa> Babesa > Aktibatuta**.
2 Sartu PINa eta sakatu **Ados**.

PINa editatzeko
1 Hautatu **Menua > Ezarpenak > Orokorra > Segurtasuna SIM babesa** > **Aldatu PIN**.
2 Sartu PINa eta hautatu **Ados**.
3 Sartu PIN kode berria eta hautatu **Ados**.
4 Sartu berriro PIN kodea konfirmatzeko, eta hautatu **Ados**.

Telefonoa blokeatzea

Telefonoaren blokeoarekin, gailua lapurtzen badizute inork ezin izango du erabili SIM txartela aldatuta. Aldatu telefonoa blokeatzeko kodea (0000), eta lau digitutik zortzira bitarteko edozein kode pertsonal jarri. Telefonoaren blokeoa Automatiko gisa ezarrita badago, ez duzu blokeo kodea sartu behar SIM txartel ezberdina sartu arte.

Telefonoaren blokeoa aktibatzeko
1 Hautatu **Menua > Ezarpenak > Orokorra > Segurtasuna** > **Telefonoaren babesa**. > **Babesa.**
2 Hautatu aukera bat.
3 Sartu telefonoaren blokeo zenbakia eta sakatu **Ados**.

Telefonoa blokeatzeko kodea aldatzeko
1 Hautatu **Menua > Ezarpenak > Orokorra > Segurtasuna** > **Telefonoaren babesa**. > **Aldatu kodea**.
2 Sartu PIN kode zaharra, eta hautatu **Ados**.
3 Sartu PIN kode berria, eta hautatu **Ados**.
4 Sartu berriro kodea, eta hautatu **Ados**.

www.sonyericsson.com

Sony Ericsson

Sony Ericsson Mobile Communications AB
SE-221 88 Lund, Sweden

1232-5332.1

Telefonoaren blokeoa desaktibatzeko
1 Hautatu **Menua > Ezarpenak > Orokorra > Segurtasuna** > **Telefonoaren babesa**. > **Babesa> Desaktibatuta**.
2 Sartu zure telefonoaren blokeo kodea eta hautatu **Ados**.

Arazoak konpontzea

Zenbait arazo konpontzeko, sare-operadoreari deitu beharko diozu, baina gehienak zeuk erraz konponduko dituzu. SIM txartela atera telefonoa konpontzera eraman aurretik. Laguntza gehiago behar baduzu, joan www.sonyericsson.com/support gunera.

Egunero berrabiarazi telefonoa memoria husteko. Memoriaren edukierarekin arazoak badituzu edo telefonoa motel badabil, berrezartze orokorra egin.

Berrabiarazte orokorra

Pantaila keinuka badabil, bertan behera gelditzen bada edo nabigatzen duzunean arazoak badituzu, telefonoa berrezarri beharko zenuke.

Telefonoa berrezartzeko
- Hautatu **Menua > Ezarpenak > Orokorra** > **Berrezartze orokorra** eta hautatu aukera bat.

Berrezarri ezarpenak lehenetsitako baloreetara ekartzen ditu telefonoan egindako aldaketa guztiak. **Guztiak berrezarri** erabiltzailearen datu guztiak ezabatzen ditu (kontaktuak, mezuak, irudiak eta telefonoaren doinuak).

Legezko informazioa

Sony Ericsson W100i/W100a

Gida azkar hau Sony Ericsson Mobile Communications ABk edo hari lotutako tokiko enpresek argitaratu du, eta ez da inolako garantiarik eskaintzen. Sony Ericsson Mobile Communications AB-ek edozein momentutan eta aldez aurretik jakinarazi gabe egin ditzake aldaketak eskuliburu honetan, akats tipografikoak zuzentzeko, oraingo informazioaren zehaztasun falta osatzeko edo programa edo ekipoetan hobekuntzak egin direlako. Dena den, aldaketa horiek eskuliburu honen hurrengo edizioetan sartuko dira.
Eskubide guztiak erreserbatuta.
©Sony Ericsson Mobile Communications AB, 2010
Publikazio zenbakia: 1232-5332.1
Zure telefono mugikorrak eduki osagarriak (adibidez, dei-tonuak) deskargatzeko, gordetzeko eta bidaltzeko gaitasuna du. Eduki horren erabilera mugatuta edo debekatuta egon daiteke hirugarren batzuen eskubideen arabera; horien barnean sartzen dira, batere mugarik gabe, aplikatu beharreko copyright legearen araberako mugak. Telefono mugikorrean deskargatu dezakezun edo bertatik bidal dezakezun eduki gehigarriaren erantzule bakarra zu zeu zara, eta ez Sony Ericsson. Edozein eduki gehigarri erabili aurretik, egiaztatu eduki horren erabilera lizentzia bidez edo beste moduren batera behar bezala baimenduta dagoen. Sony Ericsson-ek ez du inolako eduki gehigarrien edo hirugarrenen edukien zehaztasunik, osotasunik edo kalitaterik bermatzen.
Bluetooth SIG Inc.-en marka komertzialak edo erregistratuak dira Bluetooth™, eta Bluetooth-en logotipoa, eta Sony Ericsson-en marka horren edozein erabilera lizentziapean dago.
Liquid Identity eta Liquid Enery logotipoak, PlayNow eta TrackID marka komertzialak edo Sony Ericsson Mobile Communications ABk erregistratuak. Sony, Walkman eta WALKMAN logotipoa, eta "make.believe" ere, marka komertzialak dira edo Sony Corporation erregistratuak. MicroSD marka komertziala edo SanDisk erregistratua da.
Java eta Java-n oinarritutako marka komertzial guztiak eta logotipoak Sun Microsystems, Inc. enpresaren marka erregistratuak dira AEB eta beste herrialde batzuetan.
Gracenote eta Gracenote Mobile MusicID marka komertzialak dira edo Gracenote, Inc.en marka komertzial erregistratuak .

Zi Corporation of Canada, Inc-en marka komertziala edo erregistratua da Zi.
Telefonaktiebolaget LM Ericsson-en marka komertziala edo erregistratutakoa da Ericsson.
Microsoft eta Windows Microsoft Corporation-en marka komertzialak edo marka komertzial erregistratuak dira AEBn eta beste herrialde batzuetan.
Microsoft-en jabetza intelektualaren zenbait eskubideek
babesten dute produktu hau . Debekatuta dago teknologia hori produktu honetatik kanpo erabiltzea edo banatzea Microsoften baimen espezifikorik gabe.
Dokumentu honetan aipatutako gainerako produktu-izenak eta enpresak haien jabeen marka komertzialak dira.
Hemen berariaz azaltzen ez diren eskubide guztiak erreserbatuta. Irudi guztiak erreferentziazkoak dira, eta ez dira telefonoaren deskribapen zehatzak.

April 9, 2010 11:27:8